

## DIZIPLINARTEKO NOMADOLOGIA, ERTZETATIK ERTZETARA BEGIRA

Honako liburuaren berri laburra:  
GALFARSORO, Imanol (2005) *Kultura eta identitate erbesteratuak*.  
*Nomadologia subalternoak*, Iruñea, Pamiela.

Aitzpea LEIZAOLA  
Euskal Herriko Unibertsitatea

Egilearen ibilbide pertsonalak azken urteotan leku batetik bestera eraman duen gisan agertzen zaizkigu ere liburuan gaiak bata bestearen herrestan, bata besteari toki eginez. Hala, bidaiari eta turistekin hasi eta erbesteratu eta kosmopolitekin jarraikiz, giza taldeen etengabeko mugimendu eta desplazamenduak aintzat hartuz, nomadologia deritzonaren azterketetan ekarpen interesgarria egiten du Galfarosorok.

Ikasketa Kulturelek azken bi hamarkada hauetan garatu dituzten gai kuttunenei errepa-soa osatzen du egileak ehun orritako lan mamitsu bezain iradokitzailean. Bidaia, lekua, hibridazioa eta mestizaia, gorputza eta kontsumoa dira, besteak beste Galfarosorok azter-tzen dituen gaiak, guztiak antropologian zentralak izan diren bi kontzeptuz hitz egiteko: kultura eta identitatea. Eta hori egiteko ertzak hartzen ditu abiapuntu eta kokagune. Ertz espazialak eta kontzeptualak, lehenik, diasporaren kontzeptuari helduz, bere kokapen per-sonalarekin bat egiten duena –aspaldiko urtetan Euskal Herriatik kanpora bizi da egilea, euskal diasporaren kide bezala aurkezten du bere burua– eta bigarrenik, gaiaren kokagune-ari dagozkionak, euskal identitateri buruz mintzo den neurrian, zentro eta periferiatan anto-latutako errealitate sozialean birritan ertzean dagoen errealitate bati buruz ari baita, geogra-fikoki eta politikoki. Honela, Galfarosorok 'identitate erbesteratua' deritzona du mintzagai nagusietako bat. Hainbeste eztabaidatu, arbuia, defendatu izan den identitate etnikoari erantzun gisa aurkezten digu Galfarosorok identitate erbesteratua, euskal identitatearen kon-plexutasuna agerian uzteko baliogarri zaiona, ez bakarrik izen horren itzalpean gordeko lirakeen identitateei dagokionez, baizik eta ispilu moduan ere, ezaugarri finkoz osatua bailitzan aurkeztu ohi zaigun Euskal Herrian kokatutakoei dagokionez ere. Honen haritik, singularra baino, zuzenago bailitzateke identitateaz hitz egiterakoan plurala erabiltzea; Galfarosoro etengabe batetik bestera pasatzen da.

Irakurleak baina, ez du topatuko kultura eta identitatea kontzeptuen inguruko azterketa teoriko ortodoxorik. Egileak nahiago izan du bi gai hauek beste batzuen arrimuan jorra-tzea, posmodernismoak aspaldian mahai gaineratu zuen errealitate fragmentatu eta ikuspe-gi aniztasuna bere eginez. Hautu kontzeptual honek badu islarik formalki liburuan. Hone-la, bilduma osatzen duten bederatzi saioetan zehar, honako gaiak baliatzen ditu kultura eta identitateaz jarduteko: bidaia eta kosmopolitismoa, lekuak, erbestea eta erdikoitasuna, hibridakuntza eta mestizajea zein nazionalismoa, identitate nazionala eta beronen inguruan azken lau hamarkadatan sortu diren eztabaida eta proposamenak, esentzialismoaren kriti-katik abiatuta, Benedict Andersonen lanak aintzat hartuta. Azkenik, ikuspegi ludikoago

bati keinu eginez, mozorro –identitate asmatu eta interpretatua alegia– eta inauterien inguruko hausnarketarekin kritika literarioan klasikoa den Bakhtinen ikuspegia antropologian tradizio handiko gaia den inauteriarekin uztartzen du. Azkenik, medikuntza alternatiboak gorputzaren ikuspegi holista aintzat hartzen du bildumaren azken saioan. Liburuan bertan benetako ondoriorik ezean, metafora gisa uler dezakegun ideia jasotzen du azken atal honek: atal desberdinek gorputzari osotasuna ematen dioten moduan, ikuspegi holista ezinbestekoa da aipatu bi gaiak jorratzeko. Hala ere, saio desberdinen arteko lotura osatuko lukeen amaierako atal baten falta sumatzen da liburuan, nolabait jorratutako ikuspegi anitzak borobilduko lituzkeena. Izan ere, saio bakoitza bere aldetik irakur dezake irakurleak ere, liburuan agertzen diren ordenari muzin eginez.

Garai bateko zientzien banaketa zurrun guztien gainetik dabil, eroso antzean, egilea: Antropologia, filosofia, politika eta literaturaz gain, posmodernismoaren haritik azken hamarkadatan ugaldu diren ikerketa lerro askotarikoei heltzen die Galfarsorok, besteak beste ikasketa kulturalak, genero ikasketak, ikasketa poskolonialak.

Diziplinartekotasun aberatsa abiapuntu harturik barneratzen gara akaso oraindik ere hainbatentzat kutsu anglosaxoi nabarmeneko suerta daitezkeen diskurtsoetan barrena. Horrez gain, liburuak badu mundu zabaleko hainbat egile euskal irakurleari hurbiltzearen meritua: egun klasiko bilakatu diren autoreak (Bakhtin, Gramsci, Said, Urry) zein ezezagunagoak direnak (Anzaldúa), tartean ikasketa poskolonialen sortzaile eta bultzatzaile nagusien (Spivak, Bhaba) lanak eta pentsaerak dakartzkigu, egilearenarekin batera josiak, bere argudiatzearen haria ehuntzen lagungarri. Tartean, azken hamarkadako antropologo esanguratsuen lanek gidatzen dute ere Galfarsororen lana: Stuart Hall, Arjun Appadurai, zein Dean McCannelen erreferentziek zuzenean edo zeharka identitate(ar)en auzia dakartzate mahai gainera. Autore hauetako zenbaitekiko kitatu ezinezko zorra du Galfarsorok. Gramsciri jarraituaz, joan den mendeko erdialdean luzatu definizioaren ondotik ikasketa kulturelek garatutako ikasketa subalternoen eremuan kokatzen du bere burua. Egile italiarrek egin moduan, boterearen ertzetatik idazten du, boterearen ertzeta.

Honenbestez, euskaraz bestelako hizkuntzatan honez gero zabalduak diren zenbait gai ekartzen dizkigu egileak. Badu meriturik bere lanak, irakurleak punta puntako eztabaidatan murgiltzen gaituelako batetik, –horretarako zenbaitzuetan katramilatsuegia suerta daitekeen hiztegi eta joskera badarabil ere–, bai eta bestetik, jadanik beste tradizio akademikoetan nahikoa errotuak diren eztabaiden baitan bere ikuspegi propioa garatzen duen neurrian.

Euskal Ikasketa Kulturalak gorpuzteko bidean kokatu beharreko liburua da ezbairik gabe. Delako Euskal Ikasketa kulturei mamia eta bidea irekitzeko asmotan aurretiaz Renoko Basque Studies Centeren (2000) eskutik argitaratutako lanei eta ondotik etorriko direnen ekarpen bat egiten die. Diziplinen arteko muga eta ertz guztien gainetik.

## Bibliografia

DOUGLASS, William; URZA, Carmelo; WHITE, Linda; eta ZULAIKA, Joseba (2000) *Basque Cultural Studies*, Reno, Nevada University Press.